



# Deusto

Unidad de Calidad  
Kalitateko Unitatea

## ENPRESEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZEN TXOSTENAREN LABURPENA DEUSTO ALUMNI ZERBITZUA

2016-2017 IKASTURTEA  
(Ekaina)

### 1. POPULAZIOAREN ETA LAGINAREN DATUAK

Txosten honetan aurkezten diren datuak 2016ko abendutik 2017ko apirilera bitartean **Deusto Alumnirekin harremana izan duten enpresei** egindako ebaluazioaren emaitzei dagozkienak dira.

Ikergai ziren **85 enpresetatik 34ren** datuak jaso dira, hau da, **parte hartu dutenen % 40,00renak**.

### 2. EMAITZAK

Ondoren informazio hauek ageri dira:


- 2.1. 2. eta 5. itemen batez besteko puntuazioen taula. 2015-2016ko eta 2014-2015eko batez besteko puntuazioen konparaketa.
- 2.2. "Puntuazioa "oso baxua" edo "oso altua" izan den kasuetako arrazoiaren grafikoa.
- 2.3. Itemaren erantzunen portzentajearen grafikoa. 2015-2016ko eta 2014-2015eko erantzunen portzentajearen konparaketa.
- 2.4. Itemaren erantzunen portzentajearen grafikoa. 2015-2016ko eta 2014-2015eko erantzunen portzentajearen konparaketa.
- 2.5. Iradokizunak eta, enpresen ustez, Deusto Alumni Zerbitzuak hobetzeko egin beharko lituzkeen inguruko oharrak.




# Deusto

Unidad de Calidad  
Kalitateko Unitatea

2.1. Gogobetetasuneko itemen batez besteko puntuazioen grafikoa. 2015-2016ko eta 2014-2015eko batez besteko puntuazioen konparaketa.



2.2. “Puntuazioa “oso baxua” edo “oso altua” izan den kasuetako arrazoen grafikoa.



### 2.3. Itemaren erantzunen portzentajeen grafikoa. 2015-2016ko eta 2014-2015eko erantzunen portzentajeen konparaketa.


¿Conoce los servicios que ofrece Deusto Alumni?  
2016/17




¿Conoce los servicios que ofrece Deusto Alumni?  
2015/16



¿Conoce los servicios que ofrece Deusto Alumni?  
2014/15



## 2.4. Itemaren erantzunen portzentajeen grafikoa. 2015-2016ko eta 2014-2015eko erantzunen portzentajeen konparaketa.





Unidad de Calidad  
Kalitateko Unitatea

## 2.5. Iradokizunak eta, enpresen ustez, Deusto Alumni Zerbitzuak hobetzeko egin beharko lituzkeen inguruko oharrak.

### Hobetzeko alderdiak:

- **Zabalkunde maila eskasa da:** zerbitzuan ez dugu uste zabalkunde maila eskasa denik. Eskaintzak enplegu atarian agertzen dira eta zerbitzuan izena emanda dauden guztiak sar daitezke bertara. Eskaintzetara jotzeko erraztasunaz gain, enplegu eskaera horretarako eskatzen diren baldintzetara doitzen diren pertsonen bilaketa egiten da eta posta elektronikoz helarazten zaie eskaintza.
- **Feedback apur bat gehiago:** enpresen atariarekin, autonomia apur bat eman nahi izan zaie enpresei eskaintza kudeatu dezaten denbora eurek egokien uste duten eran. Autonomia hori gorabehera, une oro dago teknikari bat eskaintzak aztertzen. Berarekin edozein momentutan jar daiteke harremanetan enpresa zalantzak argitzeko, eskaintza argitaratutakoan berrespen mezu bat heltzen baitaio esleitutako teknikariaren datuekin. Feedback-a beste helbidean eskatzen da, hautagaietarikoren batekin harremanetan jarri den jakiteko eta zelan joan den hautaketa prozesua jakiteko.
- **Karaktereen muga:** ulertzen dugu karaktere mugak eskaintzaren atalei egiten diela erreferentzia. Horien barruan daude bete nahi den postuaren ezaugarriak. Hala ere, zerbitzuan ez dugu karaktere mugaren inguruko berririk. Postuaren izenean 1000 karaktere idatz daitezke arazorik gabe; eta postuaren deskripzioan, 4500. Guztira, orrialde oso bat idatzita egoteari legokioke.

### Alde onak:

- **Arintasuna eskaintzak argitaratzeko:** sistemarekin, argitalpena askoz dinamikoagoa da eta ahalik eta denborarik laburrenean lor daitezke curriculumak.
- **Eskaintza bikoiztu:** atariak eskaintza bikoizteko modua ematen du, botoi bakar bat klikatuta, eta hautagaien bilaketa berriro abian jarriz.
- **Arreta ona zerbitzuko langileengandik:** Enpleguko teknikariek lagundu egiten diete enpresei eskaintzak argitaratzen, bai hasieran jarraitu behar dituzten urratsen inguruko azalpenak emanez, bai argitalpenean edozein gorabehera gertatuz gero ere.